

ERREPORTAJEA ELGOIBARKO INSTITUTUKO IKASLEAK REUSEKO ENPRESA SIMULATUEN FERIAN  
GEHIGARRIA KILIBARREN · KULTURA INGE MORATH-EN ARGAZKI ERAKUSKETA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko apirilaren 25a/XI. urtea/443. zkia

ELGOIBAR INSTITUTUA REUS-EN IZAN ZEN V. ENPRESA SIMULATUEN FERIAN

# Agroturist, enpresa birtuala



## Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



# ELGOIHRRO

# 111STITUTLif

2a13-2004

histertea

2004-2008

AE OR

947162W



### BATXIL RGOETAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

NATUR eta OSASUN ZIENTZ1EN BATX1LERGOA-

■ Zier tifiko-Tekniko aukera • Osasun auker

GIZA eta GIZARTE ZIENTZ1EN BATXILERGOA

■ Gizarte Zientzien aukera ii Humanitate aukera

TEKNOLOGIAREN BATX1LERGOA

7

3. 8

*zatoz  
elgoibarko  
institutura*

## BATXILERGORAKO AURRENATRIKULA EPEA: maiatzaren 2tik arte

**600 ikasle inguru** beraien etorkizuna jorratzen • **45 ikasgairen** eskaintza. Ikasle bakoitzak bere bidea aukera dezan • **Azpiegitura teknologiko aurreratuena.** Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz • **ISO 9002 kalitate ziurtagiria.** Prozedura garden eta kontrolatuak • **80 lizentziatu, ingeniari edo diplomatu.** Unibertsitate eta goi mailako zikloetarako **prestakuntza zuzena • Selektibitateko emaitza ezin hobekak.**

# oskorri & the pub ibiltaria

**Maiatzak 9, OSTIRALA  
Gaueko 22:15ean  
Herriko Antzokian**

### ANTOLATZAILEA:



ELGOIBARKO UDALA DIPUTAZIOA



ko dita  
Sartetak outra saldu zez)  
Kultur Etean (gol  
lelduek 6 euto  
Ikasleek 3 euto

# 40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA  
IIIIII KULTUR ELKARTEA



## 15 Ingelesa Elgoibarko Izarran

Askok harridura aurpegia ipiniko baduzue ere, Elgoibarko Izarra izan zen ingelesa gure herrian irakasten hasi zena. Harrigarria dirudien arren, euskararen aldeko elkarte batek eman zituen lehen pausoak ingelesa irakasteko bidean. Baina ez da harritzekoa! Izan ere, zenbat eta hizkuntza gehiago ezagutu orduan eta gehiago estimatzen da norberarena. Zenbat eta gehiago maitatu norberaren hizkuntza, orduan eta gehiago baloratzen dira gainontzekoak.

Bai, ikastola sortu eta hiru-lau urtera hasi ziren ingelesa irakasten ikastolako umeei. Gaur egun hamaika partikular eta akademia dago ingelesa erakusteko desatzen, baina sasoi hartan (1966an) Elgoibarren ez zegoen ingelesa ikasteko aukerarik.

Felixi ingelesa irakastearen arrazoiaz galdetuta, "ikastolak zuen eskaintza handitu eta aberasteko hasi ginen ingelesa irakasten; umeak ikastolara erakartzeko gantxo bat bezala". Ikastolako arduradunak Donostian zegoen Colegio Inglesera joan ziren ingelesa nola eman zitekeen ikusi eta ikastera. Han ikusi eta ikasitakoarekin hasi ziren ikastolan ingelesa ematen. Hasieran ingelesa ez zen asignatura moduan ematen, ikastolako orduetatik kanpo ematen zen, iluntzetan. Ikastolako ume guztiei irakasten zitzairen baina ez zuten azterketarik edo antzerakorik egin behar. Geroago bai, ingelesa ikasgai bat gehiago izatera pasako da.

Felixek gogoratzen duenez, Mari Angeles Kortabitarte elgoibartarra izan zen estreinakoa ingelesa irakasten.

*felix Etxeberria eta Imanol Larrañaga*

# iritzial



## Aste Santua, oporren enkantua

Aste Santua, aurten ere erreplikatu da urteroko kantua. Etxetik kanpo al dago oporren enkantua? Maletak prestatu, autoa, trena, abioia edo dena delako garraioa hartu eta herritik kanpora, berdin zaigu nora. Noraezean egiten dugu alde, eta ez gainera debalde. Garesti zein merke guztiok oporren eske. Hotela, apartamentua zein kanpina, lo egiteko aterpea, alajaina. Baina norbere etxea ez al da aterpe bikaina? Ezetz dirudi, kanpokoak gustatzen zaigu guri.

Kanpora joatea da gehienon nahia eta aurrez prestatu ohi dugu bidaiari. Benidor, hondartzan aurki dezakegu edonor. Eguzki izpietatik ez da libratzen inor. Baina aurten han ere haizeakjo omen du gogor.

Candanchu, eskiatzen jendea zoriontsu. Elurretan irristatuz edo lurlean igualtsu.

Paris, argien hirian ere turista asko dabiz. Eiffel dorreak nahiago luke hain bisitatu ez balitz. Baina batzuk bertan izan dira auskalo zenbatgarren aldiz.

Tunez, bertan egon direnak geroan ere oroituko dira han pasatako hamaika uez, argazkiei begira gogoratuko han igarotako egunez.

Elgoibar, gure mendi, gure ibar. Gogoratu ditugu mila bidar, baina hobe gaur ordeztuz itzulera izan balitz bihar.

"Non nire gogoa, han nire zangoa" da esaera, eta oporretatik bueltan etorri gara Aste Santua bukatzeaz batera, nor bere etxera. Aste Santuan, ordea, gehienok ez gara portatu santu eta herriko atea zabalik utziz, kanpoan bilatu dugu makina bat enkantua.

Aste Santuko oporrak, lana albo batera utzi eta deskantsurako tartearak derrigorrak, bueltako egunak izan dira gogonak.

Datorren urtera bitartean, udako oporrak tartean, bidaiarik ez da faltako elgoibartarron artean.

Irati Agirreazaldegia

Kexak .....	5
motz MOtZ .....	8
gehigarria .....	13
kiROlAk .....	20
aGenda .....	24

## Oharra

Maiatzaren la Langilearen Nazioarteko Eguna denez, jai egingo dugu, eta datorren barixakuan, maiatzaren 2an, ez dugu BARREN kaleratuko. Maiatzaren 9an berriro ere zuen etxeetan izango gaituzue.

## ELGOIBARKO "ESKOLA KIROLA" RI BURUZ

Elgoibarko "Eskola Kirola"ri buruz hitz batzuk idazteko eseri naiz, afektatu bezala ez zaidalako batere ondo iruditzen gure seme-alaben ilusioak zelan frustratzen diren ikusi eta behin eta berriro ere isilik gelditzea.

Urtez urte ikusi dut antolaketak bazeukala hainbat hutsune, baina beti pentsatu izan dut ez dela erreza izango horrenbeste partidu antolatzea, arbitroekin ados jartzea partidu horiek arbitratzeko, partiduak suspenditzen badira abisua emateko, Gipuzkoako txapelketara joan behar direnak, Elgoiabarko partiduak ez galtzea ordu berean suertatzen badira, etabar luze bat.

Baina aurten benetan haserretu egin naiz, guzti hori ganoraz egiten ez dela ikusi dudalako. Hainbat partidu ez dira jolastu eta inork ez daki zergatik; semifinal eta finalak egun berean jokatu dira eta inork ez daki zergatik; Gipuzkoako Txapelketa jokatu behar zutenek partidua zeukaten Elgoibarren ordu berean eta ezin ziren aurkeztu eta inork ez daki zergatik...

Gauza bat daukat oso garbi, umeak ume badira ere, pertsonak dira, ilusioz betetako pertsonak eta oso errespetagarriak. Kirolean hezitzea nahi baditugu, has gaitezen gauzak ondo egiten, beraien gogo eta ilusioa akatu baino lehen.

L.I.A.  
15.364.788

## ENBIDO PNVRI

Azkeneko urteetan gehiengo absolutuaz baliatuz eta herrian ahotsa altxatu duten iritzi apurrei entzungor eginez nahi duena egin duen PNV alderdiari ENBIDO bat bota nahi dio AUZOLANIANek:

Mendaroko Telebistan eztabaida batera gonbidatzen zaituztegu. Eztabaida zuzenean eta publikoarekin izango litzateke, eta eztabaida-mahaian hauteskudeetara doazen alderdietako eta herri mugimendu desberdinetako kideak eseriko lirateke.

Jainkoak eta Lege Zaharrek agintzen duten moduan, desafiatutako parteak gonbitearen baldintzak aldatzeko eskubidea izango du hala nahi izanez gero.

Enbidoa botata dago.

AUZOLANIAN herri bilgunea.

# Urruzunoren begi ezkutua

## Programalataforma



Nahia agertu zitzaidan aszentsorean Olentzerok EINBIOU programa-plataforma firmatzeko erran zigunean. Nik NUNCA MAS ez dut firmatu, hau plataforma- programa baitzen, eta orain ez ditut ezberdintzen plataforma eta programa hitzak .

EINBIOU! NUNCA MAIS bi artean edo NUNCA MAIS EINBIOU. Aste Santurako galdera polita, agian datorren apirilean etorriko zaigu. Zorte on!

PD: biak eskertzen dituzte 6 muxu urtero.

Joseba Esnaola

# ASTEKARIA BaRRen

Nafarroa enparantza. 2  
20870 ELGOIBAR  
r 943 74 41 12  
Publizitatea:  
r 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta:  
[barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)  
Helbide informatikoa:  
[www.topagunea.com/barren](http://www.topagunea.com/barren)  
ARGITARATZAILEA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENOARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguena KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INRRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARRO, IZARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



reg kutxa  
esker

hdANOBAT  
MAQUINPS NUMAMIENTA

LAGOITI  
GRUPO DANOBAT

spyaITA



Herritar batek esan digunez, Ermuaranbide kalean arratoiak daude: "Ermuaranbide kaleko aparkalekuan arratoiak daude, eta dena zikin-zikina dago. Ingurune horrek txerriotokia dirudi. Hilabete batean 24 arratoi harrapatu ditugu bizilagunok tranpekin. Zerbait egin beharra dago".

Emakume batek esan digunez King Kong-eko autobus geltokiak 6 hilabete inguru daramatza kristalik gabe: "Haizea eta euria egiten duenean, ezin izaten gara autobusaren zain egon, sekulako hotza pasatzen dugu. Behin baino gehiagotan esan diet arduradunei, baina ez didate kasurik egiten. Kristalak puskatu egiten badituzte, beste zerbait jar dezatela".

Gazte talde batek herrian patinetearekin ibiltzeko leku gutxi dagoela azaldu digu: "Gero eta gehiago gara patinetearekin ibiltzen garenak, eta herrian leku gehiago jarri beharko lituzkete".



Guraso talde batek Ion Ulibarri txalotu nahi du: "Ikastolan, Eskola Kirolean, entrenamenduetan, mendi irteeretan... egin duen lana eta azaldu duen jarrera ezin hobea izan delako".



# AGROTURIST

Euskal Herriko Nekazaritza

## Elgoibarko Institutuko ikasleak Reuseko

ELGOIBARKO ADMINISTRARITZA ETA MERKATARITZA ZIKLOETAKO IKASLEAK. REUSEKO ZIREN MERTXOAREN 5ETIK 7k4 BITAR TEFAN. ENPRESA SIMULATUFN V. ITRIAN FUROPA GUZTIKO HERRIMLDEEK HARTU ZUTFN PARTF, ESPAINIA, 11112 LIA. INGA1A TERRA,... all 11RA i 00 STAND BA1NO GEHIAGO IKUSI AHAL IZAN LIREN FERIAN ELGOIBARKO (BAR- U1/vSTFTU 0 1KASLEFK, AGROTURISTINPRESA BIR7 UALA AURKEZTUZLITEN. AGROTURISTFUSKAI HERRIKONEKA7AL TU.RISMO ETVELN ENPRFSA AIR TUALA DA, ETA ESAN DIGUITNEZ, SEKULAKO ARRAKASTA IZAN ZUEN MIKEI ARZAMENDI I A LAURA BLANCO IKASLEEKIN 11112 EGIN DUGLE ETA SIKUIAKO ESPERIFNIZIA BIZI I.LAN DUTELA KONTATU DIGUTE

**e**lgoibarko Institutua estreinako aldiz joan da enpresa simulatuen feria batera. Asun Larrañaga irakasle eta arduradunak esan digun bezala, "enpresa simulatuen feria zegoela enteratu ginen, eta geure lana praktikan jartzeko aukera polita izan zitekeela pentsatu genuen". Pentsatu eta egin. Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailarekin harremanetan jarri, eta diru laguntza garrantzitsua lortu zuten: "Proiektu polita izan da, baina gastu handia izan du. Benetako ferietan bezala, stand-a ordaindu behar zen, bidaia, egonaldia... laguntza handia izan dugu".

### "Eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dugu Reuseko ferian"

Laura Blanco

Reuseko Enpresa Simulatuen Feria bi urtean behin ospatzen da, eta harrera oso ona izaten du. Aurten ere, Europa mailako estatu garrantzitsuenek hartu dute parte, eta guztira 100 stand baino gehiago izan dira ikusgai. Stand guztien artean elgoibartarra izan zen ikusgarrienetakoa: "Benetako baserri moduko stand-a prestatu genuen, eta bertan ere esan ziguten stand-ak sarituko balituzte, geureak jasoko lukeela lehenengo saria".

Merkataritza eta Administrazio ikasleak joan ziren Reusera. Asier eta Laurak esan diguten bezala, "Merkataritzakoek produktua ondo saltzeko detaile guztiak prestatu zituzten, eta guk, administrari lanak egiten genituen".

Asier Arzamendik esan digunez, berarentzat esperientzia oso polita izan da: "Gure moduko jendearekin negozioak egiteko aukera izan dugu, gure produktua saldu, beste gauza batzuk erosi, eta eskolan ikasitakoa praktikan jarri dugu. Gauza asko ikasi ditugu". Guztiek esan ziguten errepikatzen moduko esperientzia izan dela.



### "Gure moduko jendearekin egin ditugu negozioak. Oso esperientzia ona izan da"

Asier Arzamendi

# Simulazioaren enpresa birtualak

## Enpresen simulazioaren V. Ferian

### AGROTURIST

Elgoibarko Institutuko ikasleek argi zeukaten Euskal Herriak berea duen produktua aurkeztu behar zutela Enpresa Simulatuen Ferian. Honela, nekazaritza enpresa alorreko enpresa simulatuak sortu zituzten. Helburua enpresa desberdinetako langileei deskantsurako gunea eta aldi berean, formazioa eskaintzea zen. Agroturist enpresak hiru nekazaritza enpresa eskaintzen ditu. Lehenengoa Gasteizen kokatuta dago, eta hemen formazioa eskaintzen da, bigarrena Donostiako nekazaritza enpresa da. Estresa gaitzeko nekazaritza enpresa da, eta esan digutenez, hau izan zen arrakasta handiena izan zena: "Gaur egun enpresetako exekutiboak honelako lekuetara asko joaten dira, eta estresa kentzeko Paint-ball eta antzerako jokoetan aritzea izugarri gustatzen zaie". Hirugarrena, Bilbon kokatuta dago, eta honen helburua langileak saritzea da: "Enpresariak merezi duen langileari sari gisa Bilboko nekazaritza enpresa honetan ibilbide turistiko eta gastronomikoak eskaintzen dizkio"




Sekulako arrakasta izan zuen Agroturist enpresak. Hasierako helburua 20 enpresari saltzea zen, eta erraz gaititu zutela adierazi digute: "Euskal Herriko turismoa eta Euskal Herria bera ere, oso ondo saldu ditugu Reusen".

### ZI | 1),\ | I; | A\_s)

Enpresa birtualak benetako enpresen kopia dira. Hau da, benetako enpresen funtzionamendu berbera dute, baina mugitzen den dirua birtuala da. Mikelek eta Laurak azaldu diguten bezala, "negozioak beste enpresa birtual batzuekin egiten dira. Dirua ez da ikusten, baina salerosketak benetakoak dira. Bezero eta hornitzaile guztiak birtualak dira".

Elgoibarko Institutuan Elgoibai izeneko enpresa birtuala jarri zuten martxan. Mundu mailan osatutako enpresa birtualen sare bateko parte da Elgoibai. Sare honetan mundu osoko ikastetxe ugari dago, baina Euskal Herrikoak oso gutxi dira. Asun Larrañagak esan digunez, beraiek izan dira sare honetan sartu diren lehenengo euskaldunak. Honela definitu digute Elgoibai: "Altzolako ura saltzen duen enpresa da, eta Hegoamerikatik ere erosten dute. Enpresa birtual honetan klasean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera daukagu, eta benetako enpresen funtzionamendua ikasten dugu. Departamentu desberdinak dituen enpresa da Elgoibai, eta ikasle guztiak langileak izango bagina moduan, departamentu guztietatik

pasatzen gara. Zuzendaritzako bilerak egiten ditugu, fakturak, albaranak... benetako enpresa izango balitz bezala. Klaseak bukatutakoan benetako enpresetan egingo ditugu praktikak".



## Elgoibarko alderdiek izendatu dituzte Udal Hauteskundeetarako zerrenda buruak

Guztira 5 alkate gai daude, 3 elgoibartarrak eta 2 kanpotarrak



Ezkerretik eskumara, Maribi Agirregomezkorta, Iñaki Odriozola, Ovidio Campello eta Iñigo Arkauz. Igor Irigoien Ezker Batuako zerrendaburuaren argazkirik ezin izan dugu lortu.

Joa den apirilaren 21ean amaitu zen Udal Hauteskundeetarako zerrendak aurkezteko epea eta jadanik badakigu zera izango diren Elgoibarko Udalerako alkate gaiak. EAJ eta EA alderdiek koalizio bateratua aurkeztu dute aurtengo hauteskundeetarako eta zerrenda burua

Maribi Agirregomezkorta izango da. Elgoibarren Einbiou plataformak udal hauteskundeetan parte hartzeko behar zituen sinadurak lortu ditu eta jadanik zerrenda ere osatua dauka, plataforma honetako alkate gaia Iñaki Odriozola izango da. PSE-EE alderdiak ere aurrez

aurkeztu zuen zerrenda eta lehenengoa Ovidio Campello izango da. PP eta IU-EB alderdiek kanpoko alkate gaiak aurkeztuko dituzte Elgoibarko zerrendetan: Iñigo Arkauz, egungo Elgoibarko PPko zinegotzia eta Igor Irigoien hurrenez hurren.

## Prozesio eta elizkizunekin ospatu dute Aste Santua eliztarrek

Erramuen bedeinkazioa eta Ama Birjinaren eta Kristo Berpiztuaren irudien topaketa izan ziren ospakizun nagusiak



Erramu Igandean prozesioa izan zen herriko kaleetan.

Aste Santuko oporrak aheretik kanpora joateko aprobetxatu ditu askok, baina izan da ohitura zaharrei eutsiz jai egunak errezoan eta elizan eman dituenik. Erramu Igandean elizako atarian erramuak bedeinkatu ostean prozesioa izan zen herriko kaleetan eta Errosarioko Ama Birjinaren aurrean geldialdia egin ondoren, elizara itzuli ziren, bertan meza entzuteko.

### Pazko Igandea

Baina Erramu Igandekoa ez zen izan elizak egindako ospakizun bakarra. Bestek


beste, hilaren 20an, Pazko Igandez, prozesioa izan zen meza nagusiaren ondoren. Ama Birjinaren eta Kristo Berpiztuaren arteko topaketa irudikatzen du prozesio honek. Bi irudiek Plazan bat egitean ohitura zaharrari jarraituz adoraziozko hiru agurrak egin zituzten. Ondoren Parrokian meza izan zen eta bertan herriko zenbait haur bataiatu zituzten.

Parrokian ez ezik Santa Klarako, Madalako eta San Lorentzoko elizetan ere izan dira egun hauetan prozesioak, mezak, bedeinkazioak eta penitentziak.



## Madalako zubia zabalduko dute Urasandiko errotonda egiteko

Madalako zubitik azken aldian pasa direnek ikusiko zuten langileak bertan obretan dihardutela. Izan ere, zubiaren zabalera handitu nahi dute errotonda berria egitean galtzada eta biribilgunetik etorriko den bideak modu egokian bat egin dezaten. Horretarako Andonegi etxearen alboko parkea bota zuten lehenengo eta Urasandi azpiko fundizioa gero. Ondoren 36 metroko diametroa izango duen errotonda eliptikoa eraikiko dute N-634 errepideak eta Madalako zubiak bat egiten duten gunean.



## Elgoibarko pistolak Irakeko gerran

Gerra hotsak urruti daudela iruditu arren, Elgoibarren oihartzuna Bagdagera iritsi da. Maria Sanchez-Vallejo Diario Vasco egunkariko berriemaileak Bagdagetik idatzitako artikulua baten arabera, Bagdad hiriko Mansur auzoan armak erabiltzen dituzte dendetan lapurretan dihardutenengandik babesteko. Horietako pistola batzuk, heldulekuan duten idatziak Elgoibarren egindakoak direla dio. Beraz, gure herriak ere izan du gerra honetan lekurik.

## Udan euskara ikasten ari den jendea hartzeko prest dauden familia euskaldunak behar dira

HABEk sustatu eta diruz laguntzen duen egitasmo honen helburua euskara ikasleei familia euskaldunetan egonaldiak egiteko aukera eskaintzea da, horrela, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango dute ikasleek. Familiak 550 euro jasoko ditu hilabete bakoitzeko. Izena emateko azken eguna apirilaren 30a izango da. Informazio gehiago Elgoibarko Udaleko Euskara Zerbitzuan (943-74 43 66).

Familiak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Euskaldunak %70etik gora diren udalerrian edota auzunean bizi izatea, beraz, Elgoibarri dagokionez, bailaretako baserrietan bizi diren familiek bakarrik izango dute ikasleak hartzeko aukera.
- Familiakoen arteko ohiko komunikazio hizkuntza euskara izatea.
- Egonaldiak hilabetekoak izango dira gutxienez, eta hilabete bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango da.
- Ikasleak 18 eta 45 urte bitartekoak izango dira.
- Egonaldia eskaintzen den hilabetean, etxean gutxienez hiru lagunek bizi beharko dute.
- Ikaslearentzako logela bat libre izan beharko du.

### Lau errail

Errotondara iritsi aurretik lau erraileko bidea egingo dute. Bi Eibarrerako norabidean, Ford garajearen parean hasita eta beste bi Andonegi etxe parean Mendaroko norabidean. Biribilgune honek

gidariei errepide nagusira edo herrira sartzera erraztuko die. Uztaileko lanak amaituta egotea espero dute, eta obrek guztira 960.000 euro inguruko kostua izango dute.



## Egunkariaren Aldeko Batzordeak "Koadrila bat-bono bat" kanpaina jarri du martxan

Egunkariaren aldeko dirua biltzeko asmoz Egunkariaren Aldeko Elgoibarko Batzordeak bonoak banatzeko kanpaina egin du. "Koadrila bat-bono bat" izena jarri diote egitasmoari eta herriko lagun taldeei 50 edo 300 euroko bonoak eskuratzeko aukera emango diete. Apirilaren 30era arteko epea izango dute interesatuek bonoak hartzeko eta horretarako Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokalera jo dezakete. Bestalde, Egunkariako kamisetak ere oraindik salgai daudela gogorarazi nahi dute batzordekoek.

## Arantza Kortabitarte da EAJko imegoth berria

Gillermo Garatek Eusko Jaurlaritzan bete beharreko postua hartzeko Udalean utzitako lekua hartuz, Udal hauteskundeetara bitarteko epean Arantza Kortabitarte izango da EAJko zinegotzia. Azken Udal plenoan alderdi guztiak onartu zuten hautagaia, eta Kortabitartek Garateren tokia beteko du.



## Apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna

Emakumernoek (%32,3) liburuak irakurtzeko gizonetakoek (1023) baino zaletasun handiagoa dute

## BA AL DAUKAZU LIBURUAK IRAKURTZEKO ZALETASUNIK?



**ENDIKA ETHANIZ**

**13 urte, ikaslea**

Ez, eskolan bialtzen diatena bakarrik irakurtzen dot. Ez jata asko gustatzen irakurtzia, baina "Simbad Marinela" liburua gustau jatan.

**YOLANDA NIETO**

**26 urte, irakaslea**

Ez daukat irakurtzeko denborarik, eta gainera, sekula ez zait gehiegi gustatu irakurtzea. Gauetan nahiago dut telebista ikusi, baina horretarako ere nekatuta egoten naiz.



**MARI CARMEN PEREZ**

**43 urte, etxekoandrea**

Bai, irakurtzen dut. Denboraldiak ditut, batzutan asko irakurtzen dut, eta beste batzuetan gutxiago. Normalean gauz irakurtzea gustatzen zait.

**JOSE ANTONIO SANTOS**

**37 urte, ekonomista**

Ez, ez dut liburuak irakurtzeko zaletasunik, ezta denborarik ere. Normalean egunkaria irakurtzen dut, baina ez daukat nobelak irakurtzeko ohiturarik.



**ELENA SOTO**

**37 urte, etxekoandrea**

Bai, izugarri gustatzen zait irakurtzea. Gauero, lo hartu aurretik ordu bete baino gehiago pasatzen dut irakurtzen. Ezin dudanean, zerbait falta zaidala nabaritzen dut.

**SERGIO SANCHEZ**

**22 urte, mekanikoa**

Bai, urtean hiru edo lau liburu irakurtzen ditut. Mota guztietakoak gustatzen zaizkit, eta normalean gauz irakurtzen dut.



**Malape taberna**  
Orain astegunetan  
egunero **6:00** etan  
irekitzen dugu  
San Frantzisko, 60  
tel. 943 74 19 43

**0021,**  
Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- \* IDAZMAKINEN SALMENTA
- \* ETA KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN BIRREGTLEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAX

## ALERGIAK: UDABERRIAREN MEHATXUA

### **Z**er dira alergia?

Alergia gorputzaren gehiegizko erreakzio bat da, substantzia jakin batzuen aurrean. Gaixo hauek jaiotzatik bertatik dakarte alergia jasateko aurrejoera genetikoak, eta gehienetan sintoma alergikoak dituztenek aurrekari familiarak izan ohi dituzte.

### **Polena, etsairik nagusia**

Udaberriko alergia alergenoren desberdinek sor ditzakete. Landareen polena edo lorautsa da alergenoren usua. Ondoren intsektuen ziztada, landare edo lore jalcineldin edukitako kontaktuaren ondorena eta eguzkiarekiko alergia daude.

Landareak loratzen direnean polenak edo lorautsak han-hemen hedatuko dira haizearen ekintzaren ondorioz. Aurreko hilabeteetan euri gutxi izan bada, polinizazio-indizeak asko gehitzen dira. Eskualde hezeak dira pertsona alergiko batentzat egokienak, euri-urak eragotzi egiten baitu polenak airean barrena zirkulatzea, giroa "garbitzen" laguntzeaz gain.

Faktore genetikoek gain, ingurugiroko faktoreek ere badute beren eragina: kontaminazioa edo kutsadura, aldaketa klimatikoak eta bizi-azturak.

### **Nola agertzen da alergia?**

Alergiko guztiek ez dituzte erreakzio alergikoak modu berean agertzen.

\**Errinokonjuntibitisa*: usinak edo doministikuak, sudurreko ur-jarioa.

\*Bronkioetako sintomatologia da nagusi, *asma bronkiala* izanik patologiarik ohikoena. Alergiaren ondorioz, bronkioetako mukosa inflamatu egiten da, eta bronkio-paretetako muskulu-zuntzak uzkurto egiten dira.

\*Azkenik, *urtikaria*, zeinu tipikoa azaleko erupzioa da

### **Tratamenduari buruz, zer?**

Tratamendua, ahal izanez gero, noski, alergenoren ebitea da, hori ezinezkoa baldin bada, polenaren kasuan adibidez, tratamendua *immunoterapia* izaten da, alegia txertoak. Hauen bidez gorputza alergenorekin kontaktua edukitzera ohitu nahi da, eta hori lortzeko txerto horietan alergenoren kopuru txiki-txikiak injektatzen dira, pixkanaka kopuru horiek gehitzen joateko.

Hartu beharreko arreta-neurriak

A) Eninnis alergikoa baldin badaukazu: Itxi etxeko leihoak gauez.

\*Kalera ateratzeko jarri eguzkitako antiojoak eta haize handia egiten duen egunetan ahal bada ez irten kalera.

\*Ebita itzazu belar edo soropilez jositako lekuak.

\*Kalean ibiltzeko ordurik txarrenak goizeko 5:00etatik 10:00ak bitartekoak, eta arratsaldean 19:00etatik 22:00etara dira.

\*Begietan hazkura handia sentituz gero, garbitu ur hotzarekin, ur asko erabiliz.

B) Asma alergikoa baldin baduzu: Ez erre, giro kargatuak ebitatu. Aireztatu ongi etxea, baina ez, ordea, polinizazio-orduetan (goian aipatutakoetan). Aire egokituko iragazkiak aldian behin garbitu egin behar dira.



Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENe 943 74 41 12ra



## MASAJISTAK

**Victoria Iraegi**

P.M. Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen Belardenda**

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya Belardenda**

(Zure osasunerako erremedio naturalak)

San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus Optiko-optometrista**

San Bai toiertle, 10 • Tel: **943 74 37 34**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Iñaki Rivero**

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

## Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu **943 74 37 04ra**

# nola ALDATU diren gauzak!

2003-1V-25



**1957.** urteko erretratua dugu hau. Bertan Santa Klara auzoko elizako sarrera ageri zaigu. Itxura denez, paraje hau obretan zegoen garai hartan. Eliza ondoan, azken etxebizitza batzuk ere ikus daitezke oraindik. Santa Klarako eliza hau gazte askok ez duzue ezagutuko, baina garai hartan fededun asko joaten zen bertara mezetara. Orduan ere, gaur egun bezala, "Klarisa Mojak" zeuden komentuan. Argazkian ikusten den bezala, errepide berria ere eginda zegoen ordurako. Errepide honetan zehar jende mordojo joaten zen "Irigarre" gainera, eta handik San Migel bailarara eta Markina aldera. Garai hartan, Santa Klara kalea zegoen hemen, eta hainbat etxetatik txanala hartzera jaisten ziren errekarara. Dudarik gabe, beste garai batzuk ziren.


**2003.** urteko argazki honetan, zeharo diferente ageri zaigu paraje hau. Gaur egun eliza lekuz aldatuta dago. Markinara bidean, "Uztarrineko" parean dago eliza. Santa Klara auzoan bestalde, Jauzoro Plaza dotorea eta etxebizitza berriak eraiki dituzte. Jende asko bizi da auzo honetan gaur egun. Denda berriak ireki dituzte, eta "Zubi Ondo Sociedad Ajedrecistica" elkarteak bertan dauka egoitza. Kalearen hasieran Salvador Santuaren efigea edo bustoa ikus dezakegu. Denborak eta garaiak asko aldatu dira, eta urte haiekin konparatuz, mugimendu handiko auzoa da gaur egun Santa Klara.

Juanito Gorostiza



## ESKERTZA

*2003ko apirilaren 20an, 63 urte zituela hil zen  
MARCI GODOY CALLEJOren sendiak,  
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





# BaRRRen

## Auzolanian Herri Plataformak hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du



Joan den martxoaren 29an aurkeztu zen Mendaroko Auzolanian herri plataforma Gernika Deialdiarekin bat eginez, eta duela egun batzuk egin dute hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko sinadura bilketa, gutxiengo kopurua aise gaindituz.

"Mendarokuak gera. Euskal Herrikuak gera", honela aurkeztu zuten beren burua, "Euskal Herrixan alde eta Mendaron

alde lan egiteko asmotan sortu da Auzolanian herri plataforma. Zer esanik eta zer eginik badegula pentsatzen degu".

Honakoak izango dira Auzolanian herri plataformaren zerrendako hautagaiak:

1. Enetz Ezenarro
2. Alain Ulazia
3. Nerea Larrañaga
4. Leire Eizagirre
5. Arritxu Urbieta

## Egunkariaren aldeko bonoak

Egunkariaren proiektu berriaren alde dirua biltzeko asmotan 50 euro-ko bonoak atera dira. Maiatza baino lehen eskaini dezake laguntza bono hauen bitartez edozein pertsona, elkarte, komertzio edo enpresak. Bono hauek eskuratzeko, In Leike Taldeko partaideekin harremanetan jarri edo 657779837 telefonora dei dezakete interesdunek.

**Bonootan pertsona edo talde bakoitzaren datuak apuntatu beharko dira (izen-abizenak, helbidea, N.A.N. zenbakia, posta kodea eta telefono zenbakia) egunkari berriaren proiektua aurrera irtengo ez balitz laguntzak eman dituztenei dirua bueltatu ahal izateko.**

Bono hauek, bete ondoren, "Sendotu Euskal Prentsaren Aldeko Kultur Elkarte"ri emango zaizkio, gordailu



gisa, euskarazko egunkari berriaren elkarte argitaratzailearen partaidetzen edo akzioen harpide izateko.

Asko dira jada bonoak eskuratu dituzten elkarte eta komertzioak, besteak beste, In Leike Elkarte, Ameikutz Musika Eskola, Mendaroko Txistulari Taldea, Alberto Arrandegia, Kilimon Zahar Ehiza eta Arrantza Elkarte, MaAsun Okindegia...

## Sagardotegira irteera Gazte Asanbladak antolatuta

35 gazte baino gehiagok egin zuten "kupeletik txotx!" Hernaniko Iparragirre sagardotegira Gazte Asanbladak antolatutako irteeran. 3. urtea da Gazte Asanbladak sagardotegira irteera antolatzen duela eta animatu zirenek oso oso ondo pasa zutela ziurtatu dute.

## Mikel Portu pelotaria udaberriko trofeoko txapeldunorde Iker Txurruka elgoibatarrekin batera

Duela egun batzuk eskuz binakako Udaberriko Trofeoko finala jokatu zuten Oñatin, kadeteen mailan, Lagunak klubeko Markel Portu mendarotarrak eta Iker Txurruka elgoibartarrak. 22-17ko emaitzarekin bukatu zen partiduan lehia osoan aurretik ibili zen Hernani B-ko bikotea izan zen txapelduna.

## Txirrindulariak irabazi zion kamioilariari apustud

Egun batzuk direla Iñaki Arregi "Kanua" txirrindulariak eta Edu Aguirre kamioilariak apustu bitxi bat jokatu zuten: ea nor azkarrago burutu Garagartza auzoan hasi, Billaburutik pasa eta Lizarolarainoko bidea, hori bai, kamioiak atzerako martxan. Azkenean txirrindularia izan zen garaile 5 minutu eta 34 segundurekin. Kamioiak zailtasun handiagoak izan zituen eta 29 segundo beranduago iritsi arren, abilezia handia erakutsi zuen.

# MENDARO Udal Hau

Mendaro prest dago datorren maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetarako. Alderdi Politiko desberdinetako alkate gaiekin hitz egin dugu. EA alderdiak ez du zerrenda gairik aurkeztu. Hasiera batean EAJrekin koalizioa osatzea adostu zuten arren, ezinbesteko baldintza eskatzen zuten: "Mendaron bi alderdien artean, baina batez ere herritarren artean horrenbeste eztabaida, zalantza eta haserre sortu dituzten

**RAMON ALBERDI** EAJko zerrendaburua

## "Kultura eta kirol ekipamenduak falta dira Mendaron"



**Adina:** 40  
**Jaioterria:** Mendaro  
**Lanbidea:** Mendaroko Gure Lan enpresako langilea  
**Egoera** Ezkondua  
**Zaletasun bat:** Txirrindularitza

**Zer dago faltan eta soberan Mendaron?** Kultura eta kirol ekipamenduak falta dira. Soberan ez dago ezer. Herri gaztea da Mendaro, eta beharrak gehiago dira, soberan daudenak baino.

**Zer aldatu beharko litzateke Mendaron?** Ez dut uste aldatzeko ezer dagoenik. Herri bakoitza den modukoa da, bere gauza on eta txarrekin.

**Mendaroko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein ezkutatu?** Ingurunea erakutsiko nioke, eta herrian elizak eta plazak. Ez nioke ezer ezkutatu, ez daukagu lotsatzeko ezer.

**Azken aldian entzun duzun berririk onena? Eta txarrena?** Onena, San Jose Ikastolan gero eta haur gehiago dagoela. Txarrena, Kilimon taldearen desagertzea.

**Zein egunkari irakurtzen duzu?** Astean zehar Diario Vasco, eta asteburuetan Deia.

**Nor miresten duzu?** Konkretuki inor ere ez. Laguntzeko prest dagoen jendea gustatzen zait.

**Zein da gehien baloratzen duzun eskubidea?** Adierazpen askatasuna.

**Maiatzaren 25ean zuri botoa emateko arrazoi bat?** Azken urteotan

Mendarok izan dituen aldaketak denon onurarako izan dira, eta gauzak ildo beretik bideratuko ditugu, ahal dugun hoberen egiten. Gure beharrei erantzuneko dien eta Hazkundera bultzatuko duten Arau Subsidiarioak ezarri nahi ditugu. Konfiantza apur bat eskatzen dugu, Mendaro herri dinamiko bihurtu nahi dugu, bai mendarotarrentzat eta baita, kanpotik datozenentzat ere.

**Programaren punturik garrantzitsuenak?** Mendarok behar dituen ekipamendu kulturalak ezarri. Agustina Mojen Komentua Mendaroko ekintza kulturaletarako egokitu, eta bertan, herriko gazteen topagunea izango den gazte lekua ezarri. Peditra eta haurtzaindegia jartzeko aukera aztertu, eta herriko plazetan haurtzaindegia jokoak ipini. Udaletxetik Babes Ofizialeko etxeak eraikitzeke lurra bultzatu (kostu prezioan). Enpresei beren ekintza burutzeko lurra eskaini, denok nahi baitugu etxetik gertu lan egin. Nagusiei dagokienez, Eguneko Zentroa egitea. Kirolean, Ospas Gainen futbol zelai berria eraikitzea, kiroldegia... Oinezkoen pasabidea herri esparru garrantzitsu bilakatu, harreman sozialak eta elkargunea bultzatzeko espazio publiko bihurtu. Herriko bi margenen lotura izango litzateke. Pasabidea homituzeko aukera aztertuko da: jarlekuak, zakarrontziak, lorontziak eta eguraldi txarra egiten duenerako markesina bat.

**ESTI GONZALEZ** MTIko zerrenda

## "Informazioa herritar mekanismoak eskasak"



**Zer dago faltan eta soberan Mendaron?** Faltan: Informazioa herritarrengana iristeko mekanismoak nahiko eskasak direla uste dut eta beharrezkoa da herritarrek iritzi sendoa osatu ahal izateko. Modu berean, herritarrengandik Udal ordezkariari informazioa eta herri nahia iristeko bidea ere sendotu eta suspertu beharko litzateke, mekanismo eta lan egiteko modu berriak sartuz, pertsonen partehartzea indartuz. Soberan: Interes partikularrei herri iritziari baino garrantzi handiagoa ematea.

**Zer aldah, beharko litzateke Mendaron?** Udalaren konposaketa, maiorzago gabe funtzionatzen dutenek beti erabaki kontsentsuatuagoak hartzen baitituzte eta hauek herriaren iritziaren adierazgarriagoak izaten dira.

**Mendaroko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein ezkutatu?** Aran Erreka bailaran paseiatzera eramango nuke edota Arno inguruko Kanpazar puntara igo bertatik ikusten den bista erakusteko. Tamalez, egunean dagoen egoeran Garagartza auzoa ezkutatu nuke. Dena den, datozen urteetan aldaketak egin ahal izatea espero dugu eta Mendaroko bihotzetako bat den auzo hau berreskuratzeko asmoa daukagu.

**Azken aldian entzun duzun berririk onena? Eta txarrena?** Zoritxarrez ez dira berri on asko entzuten, baina zerbait aipatzekotan Euribor eta Mibor-a baj atu direla. Txarrak ugariagoak dira, Irak-eko gudua, Neumonia Asiaticoa...

# eskuncieen atarian

hirigintza-egitasmoen inguruko gogoeta komuna egin eta Mendaroren etorkizunerako guztiz garrantzitsuak diren hainbat erabaki adostu. EAJren erantzuna ezezkoa izan da; planeamenturako arau berriak martxan daudela eta ez dagoela ezer adostu beharrik. Mendaroko Herriari azalpena zor genion, eta jakin ezazue Mendaroko EAk herritarren esanetara jarraituko duela aurrerantzean ere".

gana iristeko  
ira"

"Elkarrizketarako borondatea falta da  
Udal Agintarien aldetik"

28

**erria:** Mendaro  
**etak:** Ingenieritza Tekniko  
**oa**  
**idea:** Kalitate Ingeniaria  
**ra zibila:** Ezkongabea  
**asun bat:** Bidaiatzea



**Adina:** 25 urte  
**Jaioterrria:** Donostia  
**Ikasketak:** Matematikan lizentziatua  
**Lanbidea:** Irakasle  
**Egoera zibila:** Ezkongabea  
**Zaletasun bat:** Lagunekin berriketan jardutea

## Zein egunkari irakurtzen duzu?

Eguneroko gainbegirada botatzeko DV, eskura bera baitu. Dena den, albiste bati buruz konkretuki jakin nahi izanez gero, I-net erabiltzen dut.

**Nor miresten duzu?** Bizitzarekiko jarrerak miresten ditut. Jarrera positiboak, aktiboak eta oraindik ere idealengaitik lan egitea merezi duela uste duten pertsonak.

**Zein da gehien baloratzen duzun eskubidea?** Askatasuna, nahiz eta azken boladan hitz hauek oso "erabiliak" egon.

**Maiatzaren 25ean zuri botoa emateko arrazoi bat?** Ez dut uste gehiengo ona denik herriarentzat eta gu gehiengo hori apurtzeko aukera bat gara. Horretaz gain, gauzak egiteko era desberdin bat proposatzen dugu, sentsibilitatea erabiliz.

## Programaren punturik garrantzitsuenak?

- Informazioa herritarrengana iristeko eta herritarrengandik jasotzeko tresnak eta moduak sortzea, partehartzea sendotuz.
- Alkate liberatu gabearen aldekoak gara.
- Urbanismoa: Hazkunde motelagoa proposatzen dugu, etorkizunerako lur batzuk utziz orain denak agortu ordez.
- Kultura: Dinamika kultural partehartzaileago baten alde jotzen dugu.
- Mankomunitateko baliabideak aprobetxatzearen aldekoak gara, herri txikia izanik, hainbat zerbitzu eta baliabide berri sortu beharrean (mantenimendu handikoak Mendarorentzat) daudenak aprobetxa bait daitezke.

## Zer dago faltan eta soberan

**Mendaron?** Elkarrizketarako borondatea falta dela uste dut, batez ere Udal agintarien aldetik. Soberan daukaguna berriz, jendeak gizarteko arazo ezberdinen aurrean agertzen duen inplikazioa eta solidaritatea urria dela iruditzen zait.

## Zer aldatu beharko litzateke

**Mendaron?** Gaur egun herriko agintariak (EAJ) azken hauteskundeetan lortutako gehiengo absolutuaz baliatzen dira, oposizioari entzungor eginda eta herriaren iritzia zein den jakiteaz arduratu gabe, Mendaro nahi duten eran antolatuz. Udalak herriaren zerbitzuan lan egin behar duela uste dut, beti ere herritarrengandik ahalik eta hurbilen mantenduz, eta herriaren interesak defendatzeko helburu sendoarekin.

**Mendaroko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein ezkutatu?** Badira ikusteko moduko lekuak Mendaron : Plaza auzua, Arno aldia, Aran Erreka **Ez** nioke ezer ezkutatu; fabrikak ez dira hain politak baina jaten ematen diote herriari, eta gure ireganaren parte dira. Ikus dezala gure herria bere gauza on eta ez hain onekin. Ez dut gustoko hain zabaldua dagoen norbere herria besteen gainetik jarri behararen kirol hori.

## Azken aldia entzun duzun berririk

**onena? Eta txarrena?** Egunkariaren itxierak Donostiako manifestaldian izan zuen erantzun zabalak poztu ninduen, euskaldunok alkar hartzeko afizio handiegirik ez dugula dirudien honetan. Berri txarrentzat oster, Amerikako Estatu Batuetan telebista kate nagusiek ez ei dute Irak-eko san'askien irudirik eskaini. Aberatsek manipulatuak mundu batean bizitzera kondenatu nahi gaituzte, dirua jainko bakar.

**Zein egunkari irakurtzen duzu?** Gara nahiz Egunero. Eta eskelak DV-n.

**Nor miresten duzu?** Ez dakit ba, zer interes izan lezakeen nik erantzun nezakeenak.

**Zein da gehien baloratzen duzun eskubidea?** Giza eskubide guztiak bermatuak izateko eskubidea.

## Maiatzaren 25ean zuri botoa

**emateko arrazoi bat?** Botua ez da niretzat izango, AUZOLANIAN herri plataformarentzat da. Elkarrizketa eta auzolana bultzatu nahi ditugu, arazoak konpontzeko bide bezala Mendaron, Euskal Herrian eta Munduan.

## Programaren punturik

**garrantzitsuenak?** Arestik dioen bezala: Gure programa oso merkea da, debalde jaso genuen herriaren ahotik eta debalde ematen diogu herriaren belarriari.

# Erretratu zaharra



.....0

ilabete honetako erretratu zaharra Janire Elordik ekarri digu. Azaldu digunez, Mendaro 1983an udalerri gisa sortu aurretik, Azpilgoeta auzoan Andramari jaiak ospatzen omen ziren; Garagartzan, aldiz, Santa Ana festak. Erretratu hau 1973. urteko abuztuaren 14an atera zen, Andramari bezperako urteroko tanborradan.

Tente dagoen neska Luz Divina de Pablo da eta, eserita daudenak, ezkerretik eskuinera hurrenez hurren: Rosa Urain, Bitoriano Loyola eta Carmen Larrañaga.



19736 kintoen

III=112.k.

Lekua: LIZARPE SOZIEdAdEA

Eguna: MAIATZAREN 1 EAN

Izen ematea: "Arrats Pub"ean







### EGUNEZ

- 25 Bidasolo
- 26 Etxeberria  
(Errosario kalean)
- Zabaleta
- 28 Etxeberria  
(Errosario kalean)
- 29 Ibañez
- 30 Yudego
- i Ibañez
- 2 Fernandez
- 3 Yudego
- 4 Yudego
- 5 Zabaleta
- 6 Etxeberria  
(Errosario kalean)
- 7 Ibañez
- 8 Bidasolo

### GAUEZ

- Bidasolo
- Zabaleta
- Zabaleta
- Etxeberria
- Ibañez
- Yudego
- Ibañez
- Fernandez
- Yudego
- Yudego
- Zabaleta
- Etxeberria
- Ibañez
- Bidasolo

### FARMAZIAK

- ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
- Tel: 943 75 16 38
- FERNANDEZ,
- Herriko enparantza 4,
- Garagarza.
- Tel: 943 75 61 42
- ZABALETA, Kalebarren, 9
- Soraluze.
- Tel: 943 75 13 84
- Eguerdiko 2ak arte"

### OKINDEGIA

- 27 igandea Fotero
- 1 osteguna Ibarrenea
- 4 igandea Idarra

### OSASUNA

- Anbulatorioa ..... 943 03 26 10
- Planning-a ..... 943 74 29 50
- Alkoholiko Anonimoak..... 943 74 03 85
- D.Y.A (anbulantzia) ..... 943 46 46 22
- Gurutze Gorria ..... 943 74 38 64
- Mendaroko Ospitalea ..... 943 03 28 00
- Odol Emaileak ..... 943 74 39 36

### GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak ..... 902 54 32 10
- PESA (Eibar) ..... 902 10 12 10
- Taxi geltokia ..... 943 74 08 98

### UDALA

- Euskara Zerbitzua ..... 943 74 43 66
- Udal Kirol Patronatua ..... 943 74 44 15
- Kultura Zerbitzua ..... 943 74 21 58
- Mendaroko Udala ..... 943 75 61 00
- Ongizate zerbitzua ..... 943 74 10 08
- Udaletxea ..... 943 74 10 50
- Udaltzaingoa ..... 943 74 13 94

### BESTELAKOAK

- Elgodarko Izarra ..... 943 74 16 26
- Kiroldegia ..... 943 74 44 15
- Kontsumo Bulegoa ..... 943 74 30 88
- Libu rutegia ..... 943 74 35 25
- Musika Eskola ..... 943 74 21 45
- Mintxeta ..... 943 74 43 15
- Parrokia ..... 943 74 08 42
- Postetxea ..... 943 74 15 47
- Gaztetxea ..... 943 74 35 72
- Gazte Informazioa ..... 943 74 14 61

### ADINEKOEN ETXEAK

- San Lazaro Egoitza ..... 943 74 02 96
- Zaharren Biltokia ..... 943 74 05 26
- Eguneko Zentroa ..... 943 74 45 65

## Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 Tel: 943 74 00 15

elosE,,,;(cw,at  
(Txema)

**-Mota guztietako pintura  
eta enpapelatuak.  
Zoluak, moketak, sintasola,  
kortxoak, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

## Elgoibar Ikastolak bailarako 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat 1. Irratsaio Lehiaketa antolatu du

**D**atorren apirilaren 26an 1. Irratsaio Lehiaketa izango da Elgoibar Ikastolan. Lehiaketa honen helburua, bailarako gazteen protagonismoa indartzea da, beren gustukoa den ekintza garatzeko aukera emanez. Honekin batera, euskararen aho adierazpena eta herri hizkera bultzatu nahi dira.

Partehartzaileek binakako taldeetan banatuta, 15 minutuko irratsaioa prestatu beharko dute, eta ezin izango dute erlijio edo politika gairik erabili. Lehiaketa hasi baino lehen, partehartzaile guztiei irrtiaren funtzionamenduari buruzko 15 minutuko azalpena emango zaie. Irratsaioa euskaraz garatu beharko da, baina Ikastolak irratsaioaren azken 5 minutuetan gaztelerazko eta ingelesezko laburpen bat



eransten dutenak hobetsiko ditu, beste bi hizkuntza hauen kalitatea ere kontrolatzeko asmoz.

Epaimahaia Ikastolaz kanpoko lagunek osatuko dute, eta baloratzen diren gaietan

adituak izango dira. Lehiaketaren ostean sari banaketa izango da, eta besteak beste, euskarazko esataritza, gaia, saioaren orijinaltasuna, eta irratsaio bukaerako laburpenak baloratuko dira.

### Elgoibar Ikastolak "Kontsumo Tailer Mugikor" programan hartuko du parte

Elgoibar Ikastolako LH 5. mailako eta DBH 1. eta 2. mailako ikasle eta gurasoek, Eusko Jaurlaritzak antolatu duen "Kontsumo Tailer Mugikor" programan hartuko dute parte. Apirilak 28, 29 eta 30ean ikasleentzako tailerrak izango dira. Gurasoek hitzaldi bat izango dute, apirilaren 29an, arratsaldeko 16:30etan Ikastolako liburutegian.

Lehengaien eraldaketa, estetika eta elikadura, eta elikagaien arteko konparazio analisiak landuko dituzte. Tailer hauetan egungo kontsumo gizartean pertsona kontziente, kritiko eta arduratsu gisa jardutea ahalbidetuko dieten elementuak eskaini nahi zaizkie ikasleei, bai eta kontsumoarekiko arazoizko erabaki egokiak hartzerik izan dezaten beharrezko baliabideak erakutsi ere.



### Apirilaren 11n bukatu zen Malasiako teknikarien prestakuntza IMHn

Joan zen apirilaren 11n, Makina Erremintaren Institutuan ikasten aritu diren Malasiako teknikarien bigarren taldearen prestakuntzari amaiera eman zitzaion. Ekitaldia Elgoibarko Udaletxeko Pleno Aretoan ospatu zen. Bertan, Jose Mari Oruesagasti Elgoibarko alkatea, Dato' Shaarani bin Ibrahim Malasiako enbaxadorea Espainian, Abdul Rashid Mohd Said Europako Marako ordezkaria (Malasiako arrazaren sustapenean aritzen

den Malasiako Garapenerako Ministerioko Erakundea), Alberto Ortueta IMHko lehendakaria, Joxean Egaña IMHko zuzendaria eta Mikel Marcilla malaysiarren prestakuntzaren arduradun pedagogikoa izan ziren.

11 ingeniari malaysiarrek jaso zuten diploma. 8 hilabetez prestakuntza tekniko berezitua jaso ostean, Malasiako Kulim herrian dagoen Malaysiar-Espainiar Institutuan irakasle izatea da beren helburua.

## Inge Morath argazkilariaren lanak izango dira ikusgai Kultur Etxean Lola Garridoren bildumako 30 lan daude erakusketan


**O**ngarrik eta Udaleko Kultura Sailak antolatuta Inge Morathen argazki erakusketa izango da ikusgai gaurtik hasi eta maiatzaren 17ra bitartean Kultur Etxeko erakusketa gelan. Bertan Inge Morathek bere bizitzan egindako zenbait argazkiren aukeraketa ikusi ahal izango da.

Inge Morathen lanek pertsonen gertutasuna ekartzen digute urruntasunetik distantzia eta errespetua gordez. Argazkiak bere begirada fin eta zehatzaren lekuko dira. Begiekin ikusitako pertsona edo objektu bakoitzarekin emozionatzen zen eta argazkiek sinpletasunaren konplexua islatzen

dute. Inge Morathek arte eta politikaren inguruko pertsonaia ezagun askori atera dizkie argazkiak.

Erakusketako argazki guztiak Lola Garridoren bilduma pertsonalekoak dira, 30 denera. Lola Garrido Espainiako bildumagilerik garrantzitsuenetarikoa da eta XX. eta XXI. mendeko 500 argazkitik gora ditu gordeak. Lola Garridoren esanetan, "jendea eta ingurua bere osotasunean ikusten zuen argazkilaria zen".

Inge Morathen argazkiez gozatu nahi dutenek erakusketa zabalik izango dute astelehenetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara.




## "Ondo esan beharko" antzezlanaren eskainiko dute Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak

**H**itzak eta kantuak bat egingo dute Ramon Agirrek, Joserra Senperena pianojolea lagun duela datorren maiatzaren 8an gaueko 22:00etan Herriko Antzokian taularatuko duten lanean. Umerez betetako ikuskizun entretenigarri honek bluesa, koplak zaharra, pasadizo sasibiografikoak, rock&rola, katxondeoa eta beste horrenbeste elementu nahasten ditu. Hau da, "Ondo esan beharko" kontzertu erako show bitxia dela esan genezake.

Joserra Senperenak sei pieza joko ditu, guztiak beraiek konposatuak eta Ramon Agirrek hitzez ez ezik, kantuz eta gitarra doinuz osatuko du ikuskizuna.

Obran hizkuntzen elkarbizitzaz hitz egiten dute. Baina era berean hizkuntza bidaiatzeko oztupo ez dela adieraziko digute. Horren adierazle dira hain zuzen ere eskainiko dituzten abestiak: hiru euskaraz, bat gaztelaniaz, ingelesez bestea eta baita errusieraz abestutako kanta bat ere.



## ARGIA astekaria ezagutzeko kanpaina

Azken alearekin batera ARGIA astekariaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskaintzen zuen postala **banatu genizuen BARREN**en irakurle guztioi. ARGIA jasotzeko interesa baduzue, eta postala bidaltzea ahaztu bazaizue, oraindik aukera duzue. Postala galdu baduzue **BARREN**en baditugu alca. Bestela honako aukerak dituzue: 943 37 15 45 telefonora deitu (Edurne) edo zuen datuak eta eskaera harpide@argia.com helbidera bidali.



## Elgoibartar asko izan zen Wu-shu arte martzialen erakustaldian

Bestalde, Ramon Quina Kiroldegiko irakasleak arte martzialen opena irabazi du

**W**u-shu txapelketa jokatu zen joan den apirilaren 12an Olaizaga kiroldegian. Wu-shu hitzak arte martzialak edo gerrako artea esanahia du, beraz, jatorri txinatarreko arte martzial guztiak biltzen dituen borroka mota da, judoa, karatea, taekwondo... bezalakoena ama.

Kiroldegira jende asko hurbildu zen erakustaldi bitxi honekin gozatuz, eta bertaratutakoek borrokalariak **hiru modu** ezberdinetan ikusi zituzten lehian: esku hutsik, armekin eta gudu eran, hain zuzen ere. Indar



erakustaldiaren ostean, sailkapenak eman zituzten ezagutzera eta Beasain, Eibar, Tolosa eta Lasarteko gimnasioetako kirolariak geratu ziren lehen postuetan.

### Arte martzialen opena

Bestalde, Olaizaga kiroldegian Tai-Chi-ko irakasle den Ramon Quinak, paper ezin hobea egin zuen asteburu berean jokaturako Euskadiko arte martzialen openean. Finalerdietan yugoslaviar baten aurka irabazi ostean, nafar bati gailendu zitzaion finalean. Europako txapelketa eta munduko bigarrena dela argi utzi zuen Euskadiko txapelketan ere.

## Debarroko Euskaraz"ek fitxa berriak argitaratu ditu

Debarroko Udaletako Kirol eta Euskara Zerbitzuek, Elgoibarko Udala barne, Kirola Euskaraz egitasmoaren bartuan entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktiko berriak argitaratu dituzte. Oraingoan, Soin Hezkuntza, Natur Ekintzak eta Xakea izan dira aukeratutako kirolak.

Soin hezkuntzako fitxen egilea Alazne Mutiloa hernaniarra izan da eta umeentzat pentsatutako 112 joko baino gehiago aurkezten ditu. Natur Ekintzen fitxak, berriz, Damaso Gallastegik egin ditu eta bere fitxetan mendizaletasuna, orientazioa eta eskalada kirolei buruzko azalpenak eman ditu. Xabier Sarasuak sortu ditu xakeari buruzko fitxak. Honek xakean aurrerapausoa suposatu du, kirol honetan ez baitago eta euskaraz idatzitako materialik.

Aurreko fitxetan bezala, oraingoan ere, maketazio lana Maite Rementeria elgoibartarrak egin du. Debarroko herrietan banaketa dohain egingo da kiroldegi, ikastetxe, kirol elkarte, liburutegi eta aisialdi taldeetan; dena den salgai ere jarriko dira



## Nafarroako Mendaur eta Bmitza mendietan izan ziren 50 elgoibartar

Aste Santuko oporrak mendira joateko aprobetxatu dituenik izango da Elgoibarren, baina beste batzuk aurrez, apirilaren 12an, Morcaikok antolatutako mendi irteeran hartu zuten parte. Nafarroako Arantza herri inguruan egin zuten ibilaldia, eta

bertan Mendaur eta Ekaitza mendiak igo zituzten. 50 lagun inguru elkartu ziren eta irteeran beste lagun bat ere izan zuten, haizea, hain zuzen ere. Honek eragozpenak eragin bazizkien ere paisaia politez gozatuz, egun polita pasa zuten.

## Udaberri Sariaren bigarren postua eskuratu dute Portu eta Txurruka pilotariek

nriatiko Zubikoa pilotalekuan k—/jokatu zen 2. mailako kadeteen Udaberri Saria pilota txapelketako finala. Bertan, Lagunak pilota eskolako Markel Portu mendarorria eta Iker Txurruka elgoibartarra bigarren tokian sailkatu ziren. Hernaniarren aurka jokatu zuten finaleko partidua eta Erdoziak eta Arregik osatutako bikotea nabarmen aurreratu zen hasieran. Portuk eta Txurrukak, ordea, azkar erreazionatu zuten eta 15 eta 17ra arteko emaitzara hurbildu ziren. Partiduari buelta emango ziotela zirudien arren, berriz aurreratu ziren hernaniarrak markagailuan eta azken emaitza 22 eta 17 izan zen. Ordubeteko partidu gogorraren ostean, txapelketa bigarren tokian amaitu zuten Elgoibarko taldeko pilotariek.



*Iker Txurruka elgoibartarrak Markel Portu mendaroktrrarekin jokatu du txapelketa.*

### EMAITZAK

#### Futbola

**Haundi 2** - Mundarro 1 (Pref.)

Elgoibar 1- Arrasate 4 (1. erreg.)

Aurrera Ondarroa 2- Elgoibar 1 (Jub.)

Elgoibar 1- Aretxabaleta 1 (Kad.)

Elgoibar 2 - Bergara 1 (Neskak)

#### Esku pilota

##### Udaberri saria

M. Portu/I. Txurruka 17

X. Erdozia/A.Arregi 22 (Kad.)

Ulazia/Iriondo 20

Arrieta/Orbegozo 22 (Jub.)

#### Areto futbola

Lojantzi 2 - Zarautz 3 (Jub.)

Urretxu 2- Lanbroa 3 (1. maila)

Kenci Elg. 6 - Sestao 5 (Nazional B)



## kinder Oñederrak Bergarako tenis txapelketa irabazi du

Debarroko tenis jokalaririk erregularrenek tenis masterreko finalak jokatu zituzten Bergarako Labegarrietako kiroldegian. Elgoibartar bat izan zen tenis txapelketako irabazlea: Ander Oñederra. Anderrek Jose Caballero arrasatearraren aurka neurtu zituen indarrak finalean. Lehenengo seta 6-4 galdu arren, hurrengo bietan garaile izan zen. Ez da Anderrek txapelketa bat irabazten duen lehen aldia eta laster teniserako duen gaitasuna erakutsiz Oñatiko txapelketan hartuko du parte.

## Mintxetako taberna norbaiten esku jartzeko deialdia egin du Kirol Patronatuak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak lehiaketa deialdia egin du Mintxetako tabernaren ustiapena norbaiten esku lagatzeko. Eskaria aurkeztu nahi duten interesatuek apirilaren 31ra arteko epea izango dute horretarako. Lehiaketa irekia izango da eta kontuan hartuko dira eskaintza ekonomikoa (urteko 6.480 euro baino altuagoa), tabernaren kudeaketarako organigrama eta antzerako lanetan izandako esperientzia. Bestalde, Elgoibarren jaiotakoek edo bertan bizi direnek lehentasuna izango dute.



## Lana

### ESKAERA

- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ✕ **943 74 35 05 (Justa)**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. **660 69 53 03 (Marta)**
- Erreforma elektrikoak egiten ditut. Merke. **ir 667 08 41 24 (Vitorio)**
- Mutila buzoneo lanak egiteko prest. **tr 943 74 44 63 (21:00etatik aurrera)**
- Mutila garbiketa lanak egiteko prest. **s 943 74 44 63 (21:00etatik aurrera)**

### ESKAINZA

- Kamareroa behar da. **zr 943 74 26 21**
- Neska euskalduna behar da ekeko lanak egiteko. **ir 943 74 24 37 (12:00-13:00)**
- Eibarko jatetxeak kamarera behar du. **tr 943 12 72 22**

## Etxebizitzak

Logela alokatzen da. **zr 943 74 18 81**

Logela alokatzen da. **zr 699 91 31 69**

Etxea salgai Elgoibarko erdialdean. Eraberritua, kanpora begira, berogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

• **943 75 62 94/635 70 64 47**

• Etxea salgai Elgoibar erdialdean. 3 logela, sala, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. Merkea. **zr 679 29 13 79**

• Etxea salgai Elgoibar erdialdean. Eraberritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. **s 661 42 60 77**

• Etxea salgai Pedro Muguruzan. **zr 943 74 35 35**

## Bestelakoak

• Betaurreko graduatuak galdu ditut. Montura ilunekoak dira. Apirilaren hasieran galdu nituen. **v 943 74 06 29**

• Txori bat topatu dut Ikastolarako bidean. **a 635 72 00 91**

• Urrezko eraztuna galdu dut. Ezti koloreko perla bat dauka. **zr 943 74 44 06**

• Apirilaren 4an, 11:00 eta 11:30ak bitartean erlojua galdu nuen Kiroldegian. Balio sentimental dauka. Saritu egingo da. **zr 943 74 45 21 (M<sup>2</sup> Jose)**

• Flauta galdu dut. Lanazko funda txuri gorria dauka, K letrarekin. **tr 943 74 04 34**

• Ume baten betaurrekoak galdu ditut. (Montura metalikoa) **tr 943 74 38 29**

## Lokalak

• Txabola alokatzen da Urasandin, txakurrak gordetzeko oso egokia. Merkea. **661 62 62 60**

• Madalako etxe berrietan 5,5 m<sup>2</sup>ko trasteroa alokairuan. **a 605 77 34 53**

## Partikularrak

• Lehen hezkuntzako klaseak ematen ditut. Talde txikiak. **v 943 74 20 94 (Yolanda)**

## Salerosketak

• Opel Calibra 2.0 16v, 160 cv salgai. Full Equipe, 17" lantak, motor berria, 31.000 km. Oso egoera onean. **v 661 62 62 60**

• Alcatel mobila salgai. Prezio onean. **zr 637 11 01 97**

• 2. eskuko kotxea salgai. **tr 658 70 33 42**

• Autokarabana salgai. 6 plazakoa. 22.000 km. Egoera onean, extra ugari. 30.000 euro, negoziabileak. **v 943 60 45 31**

• Karabana salgai. Katusa 3750. **943 74 21 64**

• Kotxea salgai. Rover 216, GSI. Merkea. **s 635 72 30 26**

• Txakurrak edo antzerako erremolkeak behar dituzte. **ir 943 74 40 62**

• Renault Clio 1.2 salgai. **653 01 10 43**

• Nissan Serena 1.6 gasolina salgai. 2500 euro. **s. 669 166 207**



# ARMERIA ESKOLA

Goi Mailako L.H.ko Berriazko Institutoa

Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44

## 2003/2004 IKASTURTEA

### HEZKUNTZ ESKAINZA

### "A" eta "D" EREDUAK (Gauzez eta Egunez)

**BATXILERGOA**

ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA

**ERDI MAILAKO ZIKLOAK**

MEKANIZAZIOA  
EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK

**GOI MAILAKO ZIKLOAK**

MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA  
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA  
INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA  
TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK  
ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK



MUGAFOK GABEKO  
"TALDE EKINTZA"  
ZUREA ETA GUREA



ER-0712/2000

1SO 5002

**IZENA EMATEKO:**

**Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak, maiatzaren 2tik 9ra.**

**Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak, ekainaren 2tik 1 Ira.**

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea Kultur h'itean.  
Bigarren solairuan. TeL 943 741 461  
OIIARRA  
Ordutegi berria  
Astelehena: 17:00-20:00  
Asteartea-ostirala: 16:00-20:00

**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Agurrak



Zorionak **Paula Hernando Mugerzari**, apirilaren 24an urtebete egin zuelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Potxolo** bi urte haundi bete dituzu eta! Patxo haundi bat ikastolako laguntxo guztien partez.



Zorionak **Iosu**, apirilaren 23an 12 urte bete zenituelako. Etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **Haritz Lopez**, apirilaren 23an 8 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez.



4 Zorionak **Leire Vazquez**, gaur, apirilak 25, 12 urte bete dituzulako. Guraso eta Ainhoaren partez besarkada handi bat.




Zorionak gure txapeldun **Ioni**, gaur, hilak 25, 5 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez, eta oso ondo pasatu eguna.



Zorionak **Araceli Pais Martins**, apirilaren 29an 8 urte bete dituzulako. Guraso, aitona eta lagunen partez.



Zorionak **Ion Odriozolari**, maiatzaren 13an 13 urte bete dituzulako. Guraso, Asier eta lehengusu Unai eta Olatzen partez.



Zorionak **Nora**, hilaren 29an 7 urte bete dituzulako. Familiako guztien partez muxu handi bat.



• Zorionak **Iñigo Otaegiri**, apirilaren 24an 3 urte bete zituelako. Guraso, aitaitza eta amama eta Maixuxen partez.



♦ Zorionak **Mikel**, hilaren 24an 4 urte bete zenituelako. Iosu eta familiako guztien partez.



\* Zorionak **Iraide Rovira**, apirilaren 24an 6 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.

**BEKAK****Elikadura**

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, elikaduraren alorrean prestakuntza praktika beken deialdia egin du. Hileko 901 euro. 5 beka elikadurako goi mailako titulatuentzat, 3 kimika analisei eta produktuen kalitateari buruzko ezagutza duten titulatuentzat eta 2 informatika eta estatistikako ezagutzak dituztenentzat. Epea: apirilak 29.

**Artea**

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak AEBetan (2004-2005 ikasturtean) ikasketa artistikoak burutu eta kudeaketa kulturala areagotzeko, beka eskaini eta honako alor hauetan: Ikus-entzunczkoen Arteak, Arte Eszenikoak, Arte Plastikoak eta Arte Bisualak, Musika eta Musikologia... Espainiako Unibertsitate bateko lizentziatu titulua eta ingelesez hitz egiten eta idazten oso ondo jakitea eskatzen da.

**Artistak**

Unescok berezitasun artistiko batean espezializatu nahi duten artistentzat beka eskaini ditu: arte bisualak, musika, literatura, bideoa... epea: apirilak 30.

**Ikerkuntza**

Lazkaoko Udalak, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak eta Maizpide Euskaltegiak euskarazko ikerketa lanak egiteko beka eskaintza egin du. Alorrak: historia, ingeniariatza, antropologia... Epea: apirilak 30.

**JARDUNAUMAK****Auzolandegiak**

Rempart Primavera auzolandegiak antolatu ditu 18 urtetik gorakoentzat. Epea: ekainak 16.

**WASTARROAK****Mendiko Eskia**

Gipuzkoako Mendi Federazioak mendiko eskiaren hobekuntza ikastaroa antolatu du. Helburuak: eskiekin igotzeko teknikak praktikatzeko, jaisteko teknikak praktikatzeko, pistatik kanpo, ainguraketa teknikak, korapili teknikak ezagutu eta praktikatu... Epea: apirilak 29.

**LEHIAKETAK****Ipuin eta kontakizun hiperlaburrak**

Eskubide Zibilen Fundazioak "Todos Somos Diferentes" ipuin lehiaketa eta kontakizun hiperlaburren lehiaketa antolatu du. Epea: apirilak 30.

**Artea**

Algeteko Udalak artearen alor desberdinei buruzko lehiaketak antolatu ditu: argazkilaritza, komikia, pintura, poesia, narratiba-ipuin laburrak, eskultura eta arte digitala. Epea: apirilak 30.

**LANA****Begiraleak**

Hernaniko Udalak uztailean Hemanin egingo diren udaleku eta jardueratarako lan poltsa osatzeko deialdia egin du. Begiraleen kontratazioa 4 ordukoa izango da, astelehenetik ostiralera, 9:30etatik 13:00etara. 18 urte izatea eta euskara jakitea eskatzen da. Epea: maiatzak 6.

**Casting**

Globomediak telebistako programa baterako alderdi komiko handia eta pertsonaiak inntatzeko gaitasun handia duten pertsonak bilatzeko casting-a antolatu du. Epea: apirilak 30.

## 25 BARIXAKUA

14:10 ARGAZKI  
 ERAKUSKETAREN  
 INAUGURAZIOA  
 Egilea: Inge Morath  
 Lola Garridoren argazki bilduma  
 Kultur Etxeko Erakusketa gelan



## 3 ZAPATUA

11:00 MEZA  
 Santa Kruz eguna  
 Meza San Roken, San Bizente ermitan  
 Ondoren salda eta txorizoa banatuko dira

## 4 DOMEKIA

IRUKURUTZETA EGUNA  
 IRUKURUTZETARA IGOERA

## 5 ASTELEHENA

KONTZERTUA  
 "Errenteriako Perkusio Taldea"  
 Herriko Antzokian

## 8 EGUENA

"I" ANTZERKIA  
 "Ondo Esan Beharko"  
 Herriko Antzokian  
 Kutxak sustatuta, sarrera dohan



## 9 BARIXAKUA

22:15 KONTZERTUA  
 "The Pub Ibiltaria 7"  
 Herriko Antzokian



## "Mortadelo y Filemon"

Zuzendaria: Javier Fesser  
 Antzezleak: Benito Pocino, Pepe Viyuela, Dominique Pinon, Paco Sagarzazu, Maria Isbert  
 Bakterio doktoeari bere asmakuntzarik arriskutsuena lapurtu diote. Diktadore txiki eta zoro baten eskutara iritsiko da asmakizuna eta honek modu kriminal batean erabili nahi du. Superrek argi dauka berreskuratzekotan ez dituela bere agenteak, Mortadelo eta Filemon, lanean jarri behar. Baina hauek, beste detektibe bat kontratatu dutela ikusita, beraien kabuz hasiko dira lanean.



## JAIK

### Irukurutzeta Eguna

Datorren maiatzaren 4an, igandean, Irukurutzeta eguna ospatuko da. Goizeko 11:00etan Pago Bedeinkatua meza izango da, ondoren, salda eta txorizoa banatuko da, eta eguerdiko 13:30etan Irukurutzetara iguera egingo da. 14:00etan bazkaria (norberak berea eramanda). Arratsaldeko 15:30etan Ainhoa eta Nerea zarauztar trikitilariekin erromeria izango da. 18:00etan jaitsiko dira Irukurutzetatik.

### San Bartolome jaiak

Gazteen egunerako musika taldeei buruzko proposamenak, edo beste edozer gauza, Udaleko Kultura Zerbitzura bidali daiteke maiatzaren 10a baino lehen. Idatziz Kultur Etxera bidali, edo 943-74 21 58 telefonora deitu daiteke. Posta elektronikoz ere bidali daitezke proposamenak: [kultura@elgoibatorg](mailto:kultura@elgoibatorg)

## IKASTAROK

### Tornu ikastaroa

Lurki Elkarteak antolatuta, Tornu Ikastaroa izango da datorren maiatzaren 5etik ekainaren 5era. Ikastaroa astelehenetik ostegunera eskainiko da, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. Interesatuak, Lurki Elkarteak Aita Agirre Plazan duen lokalean eman dezakete izena.

## OSPAKIZUNAK

### 1943an jaiotako kinto bazkaria

Datorren maiatzaren 24an Sigma jatetxean anaiarteko bazkaria izango da, aurten 60 urte betetzen dutenentzat. Bazkarira joatea nahi duenak, Euskadiko Kutxako 3035000724007.1.02844.8 kontu korrantean 50 euro sartu beharko ditu maiatzaren 16a baino lehen. Dirua hilabete bakoitzeko 10a eta 25a bitartean, goizez bakarrik sartu ahal izango da. Euskadiko Kutxan kontua dutenek, dirua automatikoki ere sartu ahal izango dute 901 333 444 telefonora deitu eta NAN zenbakia emanaz.

# zine

KAR rELDEGIA

### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### "Mortadelo y Filemon"

25, barixakua: 22:15

26, zapatua: 19:30-22:15

27, domekia: 16:30-19:30-22:15

28, astelehena: 22:15

#### "Dare devil"

1, eguna: 16:30-19:30-22:15

2, barixakua: 22:15

#### "A proposito de Schmidt"

3, zapatua: 19:30-22:15

4, domekia: 19:30-22:15

5, astelehena: 22:15

### EIBAR

#### Unzaga

#### "La prueba"

25, barixakua: 19:30-22:15

26, zapatua: 17:00-19:30-22:30

27, domekia: 17:00-19:30-22:30

28, astelehena: 19:30-22:15

29, martitena: 19:30-22:15

30, eguaztena: 19:30-22:15

#### "El Americano impasible"

25, barixakua: 19:30-22:15

26, zapatua: 17:00-19:30-22:15

27, domekia: 17:00-19:30-22:15

28, astelehena: 19:30-22:15

29, martitena: 19:30

30, eguaztena: 19:30

BARRENez ez du gena litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik



## "Dare Devil"

Zuzendaria; Mark Ste% en Johnson

Aktoreak; Ben Affleck, Jennifer Garner, Michael Clarke Duncan, Colin

Matt Murdock abokatu itsua, uneoro gaua dirudien munduan bizi da. Baina gainontzeko zentzumenak asko garatuak ditu, gizakiaz gaidiko botere bihurtzeraino. Egunez, gutxituen ordezkari da, gaeuz, berriz, Daredevil bihurtzen da. Hiriko kale ilunetako zaindaria. Justizia itsua da Daredevilentzat eta errudunek ordaindu beharko dituzte bere ekintzak.

# N

>gi



# A

ste honetako erretratu zaharra Gure Bide Elkarteko bazkide batek ekarri digu bertako artxibotik. Argazki hau 1967. urtekoa da, eta bertan garai hartako Gure Bide Elkarteko Zuzendaritza Taldea ageri da. Dirudienez, ondo afaldu ostean ateratako erretratua da, eta denak irribarre gozoaz ageri zaizkigu. Gogora ditzagun zein diren erretratuan agertzen direnak.

Goian zutik, ezkerretik eskumara: Manolo Arregi (f), Tomas Astigarraga (f), Casimiro Arozena (f), Daniel Gomez (f), Anjel Leturia (t), Julian Azkue (f) eta Cruz Agirre.


Behean, ezkerretik eskumara: Jose Mari Ansola, Urban Konde (f), Antonio Unzueta, Migel Ubiria (Lehendakaria), Jose Juaristi (\*) eta Jesus Mari Ugarteburu.



# It#


## ESKERTZA

*2003ko apirilaren 19an, 73 urte zituela hil zen  
JOSE MARIA ESNAOLA LARREATEGIren sendiak,  
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## ESKERTZA

*2003ko apirilaren 6an, 77 urte zituela hil zen  
TXOMIN GORRITI AGIRREren sendiak,  
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Amaren egunerako...



...aukerarik onena.



# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA

San Frantzisko, 43 -1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

1 0:00etati k-1 2:30era

1 5:00etatik-20:30era

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR





# elgoibar ikastola

Ermuaran Bide, 7 - Posta 53  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 74 44 41 / Faxa: 943 74 84 36  
[elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)



## Eleanitza



## Eguneratua



## Atsegina



## Ikaslea protagonista



## Euskara



1 !149.114kui:J2JeJ

1./L2,k2

2Dk 9ra

## Segimendua

